



Hitz hurrenkera eta birregituraketa euskaraz

Ricardo Etxepare, Myriam Uribe-Etxebarria

► **To cite this version:**

Ricardo Etxepare, Myriam Uribe-Etxebarria. Hitz hurrenkera eta birregituraketa euskaraz. 2009.
<artxibo-00424435>

HAL Id: artxibo-00424435

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00424435>

Submitted on 15 Oct 2009

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Hitz hurrenkera eta birregituraketa euskaraz
Ricardo Etxepare (IKER, UMR5478) eta Myriam Uribe-Etxebarria (EHU)

Abstract

This paper discusses the syntactic representation of participial dependents of modal verbs in Basque, their internal structure and their position with regard to the matrix modal verb. The analysis focuses on those varieties that admit the participial dependent to occur either before or after the modal verb. It is shown that in those varieties, the syntactic position of the participial dependent correlates with differences in its internal structure: whereas participial dependents can correspond to TPs when they are located to the right of the modal verb in Basque (a typically SOV language), they cannot correspond to anything more complex than a small *v* structure to the left of the modal verb. Our analysis of the internal structure of participial dependents also extends to issues concerning the basic word order of Basque. It is claimed that the analysis presented here requires the auxiliary to be generated to the left of the verb phrase, as the antisymmetry hypothesis would have it.

1. Sarrera¹

Euskarak bezala SOV azpiko hitz hurrenkera eta menpeko perpaus jokatugabeak dituzten hainbat hizkuntzatan, gauza ezaguna da batetik, perpaus jokatugabeak aditz nagusiaren aurretik edo atzetik ager daitezkeela, eta bestetik, hitz hurrenkera horiek ezaugarri jakin batzuek galdatzen dituztela egitura aldetik. Wurmbrandt-ek (2001, 2005) hizkuntz germanikoentzat proposatzen duen sintesiari jarraitzen badiogu esate baterako, iduri luke bi egitura moeta nagusi badirela hizkuntza horietan: aditz nagusia laguntzaile bat denekoa, menpekoa aditzaren aurrean baizik onartzen ez dutenak; eta aditz nagusia lexikoa den kasua, zeinetan menpekoa aurretik nahiz atzetik ager daitekeen. Bien arteko kontrastea alemanierazko pare hauen bitartez erakuts daiteke (Wurmbrandt, 2001:292):

- (1) a. Weil der Hans der Maria helfen muss
 zeren det Hans det Maria lagundu behar-du
 "Zeren Hansek Maria lagundu behar baitu"
- b. *Weil der Hans muss der Maria helfen
 zeren det Hans behar-du det Maria lagundu
 "Zeren Hansek Maria lagundu behar baitu"

¹ Laburki bada ere, lan honen egileok gure eskerrona eta miresmena agertu nahi diogu Benat Oihartzabali, hizkuntzalaritzan eta bereziki euskararen sintaxian urtetan buruturiko lan baliotsuarengatik, izan ditugun (eta ditugun) elkarren arteko eztabaida mamitsuengatik, eta zorrotasunaren lagun beti erakutsi duen dotoreziagatik. Lan hau Eusko Jaurlaritzako GIC07/144-IT-210-07, HM-2008-1-10, HM-2009-1-1, MV-2008-2-18, Zientzia eta Teknologia Ministeritzako FFI2008-04786 eta TSABL (ANR-07-CORP-033) ikerkuntza proiektuen babespean burutu da.

- (2) a. Weil der Hans der Maria zu helfen versuchte
 zeren det Hans det Maria ptk lagundu saiatu-da
 "Zeren Hans Maria laguntzen saiatu baita"
 b. Weil der Hans versuchte der Maria zu helfen
 zeren det Hans saiatu-da det Maria ptk lagundu
 "Zeren Hans Maria laguntzen saiatu baita"

Honela, (1) kasuan, aditz nagusia laguntzaile huts bat da alemanieraz (*muss* modala), eta menpeko perpausa aditz jokatu gabe baten bitartez adierazten da. (2) perpausaldiz, aditz nagusia aditz lexiko bat da (*versuchte* "saiatu"), eta mendeko perpausak badu areagoko egitura funtzionala: *zu* jokagabetasun partikula. Bigarren egitura hauek dira bakarrik menpeko perpaus jokatu gabea aditz nagusiaren aurretik edo atzetik agertzea baimentzen dutenak. Datuek erakusten dute, batetik, perpaus jokatu gabeek egitura bat baino gehiago izan dezaketela, eta bestetik, perpaus jokatu gabearen kokapen libroak (aditzari buruz) egitura konplexuagoa eskatzen duela.

Euskaraz ere, gauza ezaguna da hizkera anitzetan birregituraketa aditzen baitakotzat jotzen diren formak bi modutara gauza daitezkeela. Har dezagun esate baterako Montoyak (2004:235) Urdazubi eta Zugarramurdi jasotako ale hauek, *nahi* eta *behar* modu aditzekin:²

- (3) a. Eta jendea(k) nonbait egon bear du
 b. Muntra oi bear nauzu jautsi
 (4) a. Angelesa perfekzionatu nai zuen
 b. Nai zuen perfekzionatu angelesa

Lan honen helburuak aski apalak dira: lehenik, erakutsi nahi genuke perpaus jokatu gabeak ez duela egitura bera aditz nagusiaren aurretik edo atzetik agertu. Aditzaren ondotik agertzen diren perpaus jokatu gabeak egitura konplexuago baten jabe dira, egitura hori partizipio

² (4a) guk erantsitako perpausa da, pare minimoa osatzeko asmoz. Hizkera horrek agertzen dituen era horretako hainbat etsenpluren kide zuzena da. Caminok (1997) ekialdekotzat dauka aditza librokiko paratzeko aukera hau. Ekialdeko hizkera tipikoak ez diren beste batzuetan aurkitzen ahal dira baitaere. Esate baterako, Bidasoaldean, Irungo ale honek erakusten duen bezala (Alzola, 1958; ikus baitaere Sagarzazuk Irun eta Hondarribian jasotako lekukotasunak, 2005):

- (i) Andre batek nai zuen apaiza bezala konfesanariyuan jarri
 Kontuz ibili beharreko datuak dira hauek, halere. Alzolak jasotako Irungo testigantzei begiratuaz, ez da batere garbi aditz hauek beste inon egon daitezkeenik modu naturalean, eta ez dute beraz perpaus jokatu gabeen distribuzioa argitzeko orduan zer esan handirik. Axolazko fenomeno artikulua honetan ez da beraz aditzak menpekoen aurretik agertzea, baizik eta eskuin nahiz ezker aldeko posizioa haizu izatea.

morfologian zuzenean ikusten ez bada ere. Argudioaren logika atal honetan era honetako izango da: fenomeno sintaktiko batek x egitura funtzionala galdatzen badu zilegiztatua izateko eta fenomeno hori bera posible bada menpeko perpausean, ondorioztatuko dugu menpeko perpaus horrek horrenbesteko egitura funtzionala baduela. Fenomenoa posible ez bada, egingo dugu menpeko perpausak egitura funtzional hori falta duela. Arrazoibide honen ildotik, agerian geldituko da aditz nagusiaren eskuinean eta ezkerrean agertzen diren menpeko perpausak egitura aldetiko asimetria nabarmenak erakusten dituztela. Asimetria hauek ezeztapenari, denborazko modifikazioari eta komunztadurari dagozkionak dira.

Lan honen bigarren xedea, eskuin-ezker agertzen zaizkigun perpaus jokatu gabeen jatorrizko egitura zein den argitzen saiatzea da. Erakutsiko dugu menpekoaren aurretik agertzen diren moduzko aditzak ez direla zuzenean hor sortuak izan, baizik eta hartzen duten posizio sintaktiko hori eratorria dela. Honek bete betean sartzen gaitu buru-norabidetasunaren auzian (ikus bereziki Artiatx eta beste, 2008), eta zehazkiago, euskara oinarrian burua azken duen hizkuntza den ala (Kayne-n hipotesiak nahiko lukeen bezala) burua lehen den. Gure analisiaren ondorioetako bat da laguntzailearen azpiko tokia euskaraz Aditz Sintagmaren ezker aldean dela.

Lan honetako eztabaida *nahi* eta *behar* aditz modalen ingurukoa izango da. Bada beste aditz sail bat, konparazio aditzena, ez-ohiko posizioa eskatzen duena menpeko perpausari buruz.³

- (5) a. Nahiago dut garaiz iritsi
b. ??Garaiz iritsi nahiago dut
- (6) a. Hobe nuke isilik egon
b. ??Isilik egon hobe nuke

Aditz hauek nahitaez menpekoaren aurretik agertu behar dute orden ez-markatuan, eta ezaugarri komun ugari erakusten dituzte menpekoa eskuinean hartzen duten modu aditzekin. Esate baterako, batzuk zein besteak ezin dira zuzenean ezeztatu (ikus bigarren atala):

- (7) a. *Ez dut behar etorri
b. *Ez dut nahiago joan

Bi egitura hauen ahaidetasun sintaktikoa begibistakoa bada ere, ez dugu ondoko lanean osoko azalpen bat eskeiniko. Bien arteko lotura zein den argitzea ondoko lanetarako uzten dugu.

1. Birregituraketa mailak eta menpeko perpaus jokatu gabek

³ Obserbazio hau Bernat Oihartzabali zor diogu. Alde batera uzten ditugu baitaere *ahal*, *posible* eta *ezin* modu adierazpideak.

Birregituraketa konfigurazioak honela defini daitezke modu intuitibo batean: bi aditz edukita perpaus bakar baten gisa portatzen diren egitura sintaktikoak ditugu. Adibide gisa, eman dezagun kasu klasiko bat, hizkuntza erromantzeetarik hartua, *klitikoaren igoera* deitu denarekin lotua dena. *Klitiko bereziak* deitzen direnak inflexio sintagmari lotzen zaizkio (gaztelaniaz, esate baterako):

(8) Lo hemos comprado (*lo)

(8) perpausean, aditzaren osagarri zuzena den klitikoa (*lo*), aditz jokatuari lotua agertzen zaigu, nahiz eta eskuarki, osagarri zuzenak aditz jokatuaren ondotik etortzen diren espainolez:

(9) Hemos comprado el refrigerador

Klitikoak erakusten duen aditz jokatuarekiko lotura estu hori perpaus baten mugen barnean gertatzen da:

(10) a. Creo que lo he visto

b. *Lo creo que he visto

Klitikoa jokatugabeko kontestuetan ere ager daiteke. Holakoetan, infinitiboari atzizki gisa lotzen zaio:

(11) a. Soy capaz de verte en la oscuridad

b. Puedo verte en la oscuridad

Hala ere, jokatugabeko kontestuetan, klitikoa goiko aditzarekin lot daiteke aukeran. Posibilitate hori ez da jokatugabeko egitura guzietara hedatzen ordea:

(12) a. *Te soy capaz de ver en la oscuridad

b. Te puedo ver en la oscuridad

Kontestu jokatugabeetan beraz, badira aditz biko egitura batzuk klitikoaren kokapen sintaktikoari dagokionez perpaus bakar bat bezala portatzen direnak (12b). Beste batzuk berriz, perpaus biko egitura gordetzen dutela ematen du, klitikoaren posizioari begiratzen badiogu behintzat. Lehen kasua, birregituraketa konfigurazio bat da. Bigarrena ez. Birregituraketa konfigurazioak perpaus bakarraren bestelako ezaugarriak ere baditu. Esate baterako, klitikoaren igoera ez da posible beheko perpausak perpaus beregainaren beste ezaugarri hau ere badu, ezeztapena izatea alegia :

(13) a. Quiere no verte más

b. ??Te quiere no ver más

Hau da, klitikoaren igoera ahalbidetzen duen kontestu sintaktikoak ez du posible egiten beheko perpausak ezeztapenik izatea. Arazoa, berehala ikusiko dugun bezala ez da, maiz uste izan den bezala, klitikoaren mugimendurekin lotua. Ezeztapena ezinezkoa da baitaere klitikorik agertzen ez duten bestelako birregituraketa fenomenoekin. Espainolezko ondoko

egituretan (Aissen, 1973) numero komunztadura posible da menpeko perpaus jokatu gabearen objektuarekin :

- (14) a. Con esta medida, se quieren evitar los problemas
- b. Con este certificado, se pueden vender remedios caseros

Komunztadura erlazioek, egitura hauetaz aparte, perpaus barneko hedadura dute, nahitaez :

- (15) a. *Se quieren que se eviten problemas
- b. *Pueden que vengan

(14)ko perpausak beraz birregituraketa efektu bat erakusten dute. Perpaus bakarrek hedadura duen fenomeno bat (komunztadura) itxuraz dagokion perpausetik harago heda daiteke, menpeko perpausko argumentu bat jo arte. Fenomenoa ez dago klitikoaren igoerarekin lotua, baina hala ere, ezeztapena ezinezkoa da :

- (16) a. ??Se pueden no vender remedios caseros
- b. ??Se quieren no arreglar los problemas

Konparatu (16)ko perpausak (17)koekin :

- (17) a. Se puede no vender remedios caseros (nadie esta obligado)
- b. Se quiere no arreglar los problemas (y que estos se arreglen solos)

Birregituraketa konfigurazioek honenbestez perpaus bakarraren eitea erakusten dute. Bi aditz izan arren, menpeko aditzak Forma Logikoan proiektatzen duen egitura sintaktikoa ez da perpaus oso bati dagokiona. Egitate hau modu diferentetan azaldu da: badira, Rizzirengandik hasita (1982), bi perpausetako azpiko egitura proposatzen duten ikuspegiak. Hauetan, bada prozedura sintaktiko berezi bat ondorio bezala menpeko egituraren urritzea ekartzen duena. Rizzi-ren formulazio klasikoan, prozedura hori birregituraketa prozedura da, P kategoriaren ezabatzea ekartzen duena menpeko perpausaren. Beste batzuentzat (Evers-engandik hasita, 1975, eta Baker-ek oraintsuago garatua, 1988), menpeko perpausko aditzaren edo denborazko buruaren igoera da bi perpausak deribazionalki batzen dituen (Ormazabal, 1990, euskararako). Beste hizkuntzalari batzuentzat ordea, birregituraketa konfigurazioak ez dira eratorriak, diren direnean sortuak baizik. Hau da, ez dago arrazoirik pentsatzeko, aditz batek, ohiko Perpaus kategoriako osagai batez aparte, haren azpiko bestelako sintaxi egiturak ezin hauta ditzakeenik osagarri gisa. Hau da Rochette-k (1988) eta oraintsuago Wurmbrandt-ek (2001) hartzen duten bidea. Wurmbrandt-entzat, birregituraketa ez da fenomeno bakun bat, baizik eta aditz batzuek osagarri bat baino gehiago hautatzeko duten ahalmenaren ondorio. Honela, *saiatu* bezalako birregituratze aditz batek alemanieraz egitura bat baino gehiagoko osagarriak har ditzake. Kontsidera ditzagun ondoko pareak (Wurmbrandt, 2001:17-18) :

- (18) a. dass [der Traktor und der Lastwagen zu reparieren] versucht wurden

Konp det-Nom traktore eta det-Nom troka inf konpondu saiatu izan-pasiboa-3pl
«Traktorea eta troka konpontzen saiatu zirela »

b. dass es versucht wurde [den Traktor und den Lastwagen zu reparieren]

Konp espl saiatu izan-pas-3s Det-ak traktore eta Det-ak troka inf konpondu
“Traktorea eta troka konpontzeko saiakera bat izan zen”

Lehen kasuan, aditz nagusiak pasibo forma hartzen du, eta menpeko perpaus jokatu gabeko objektuak nominatibo kasua jasotzen du, normalki goiko perpausoko subjektuari dagokiona. Goiko predikatuak ez du subjektu kasudunik, eta beheko objektua da goiko Denbora buruak ezartzen duen kasua (nominatiboa) jasotzen duena. Hau aldiberean, bakarrik da posible beheko objektuak ez badu bere aldetik kasu akusatiboa jasotzen. Kasu akusatiboa aditz sintagmako kausazio aditz ttipiak ezartzen duenez (ikus Chomsky, 1995), iduri luke aditz nagusiaren osagarriak proiektzio funtzional hori falta duela. Beste hitzetan esateko, menpeko perpaus jokatu gabea Aditz Sintagma simple bat da:

(20) [AS ...A⁰...] saiatu

(18b)ren kasuan berriz, *saiatu* pasibozko aditzak subjektu espletibo bat dauka (*es*), eta beheko perpausoko osagarriak kasu akusatiboa jasotzen du, hain zuzen ere aditzaren osagarriari dagokiona. Goiko forma pasibozkoa baita, kasua ezin daiteke goiko aditzetik etorri, eta ezinbestean beheko aditzaren gain eman behar dugu. Horrek esan nahi du kasu honetan *saiatu* birregituraketa aditzaren osagarria aurrekoa baino konplexuagoa dela, eta kausazio aditz ttipi bat eduki behar duela (kasu ezarketa ahalbideetzen duena):

(21) [as...[... A⁰...] a⁰] saiatu

Wurmbrandt-en ustez, *saiatu* bezalako aditz baten osagarriak denborazko adierazpide bat ere izan dezake, bazterrekotzat jo daitezkeen irakurketa batzuetan. Bere alemanierazko kasuak euskaraz molda daitezke. *Saiatu* aditzak normalki ez du denborazko modifikaziorik onartzen bere osagarri jokatu gabean :

(22) (*)Jon bihar joaten saiatu da

Saiatu aditzak saio ekintza bat eta joate eventuren hasiera lotzen ditu, bi gertakari horiek aldibereko bilakatuaz. Gerta liteke hala ere, gertakari horien arteko erlazioak ez aldiberekotasunik eskatzea. Imajina dezagun esate baterako pasaporte egin beharrean aurkitzen garela. Honek aurreko lan batzu eskatzen ditu : argazki bat eramatea, fitxa bat betetzea, pasaporte zaharra eramatea, eta aukeran bestelakoak. Behin lan horiek eginda, pasaportearen izapidetzea beste norbaiten esku gelditzen da, eta hura egitea egun batzuetako kontua izan daiteke. Horrelako egoera batean, saiatu gintezke, aurreko lan guztiak laster

eginez, pasaportearen eskuratu arteko denbora tartea laburtzen. Kontestu horretan, ez zaigu ezinezkoa iruditzen (23) bezalako zerbait:

(23) ?Xabier [bihar bertan pasaportearen eskuratzen] saiatu da, baina ez dakigu lortuko duen.

Kontestu horretan, *saiatu* aditzaren osagarriak denbora adierazpide bat izan dezake.

Esan dugunaren arabera, alemanieraz birregituraketa efektuak erakusten dituzten egiturak era batekoak baino gehiagokoak izan daitezke. Hemen erakutsi dugunaren arabera, gutxienez hiru eratakoak:

- (24) a. [_{AS} ... A⁰ ...] saiatu
 b. [_{aS} ... A⁰ ...] a⁰] saiatu
 d. [_{DenbS} Denb⁰ [_{aS} ... A⁰ ...] a⁰]] saiatu

Euskarazko partizipiozko osagarrien kasuan, iruditzen zaigu antzeko zerbait esan daitekeela. Gure analisiaren ondorioak zertxobait aurreratuaz, erakutsiko dugu eskuineraturiko partizipiozko osagarriak Denbora Sintagma mailakoak izan daitezkeela, eta ezkerrean agertzen direnak berriz ez direla kausazio aditz sintagmatik harago hedatzen.

2. Birregituraketa mailak euskarazko menpeko jokatuabeetan

Atal honetan aztertuko dugu partizipiozko osagarriek nola jokatzen duten lau prozedura sintaktikoren aitzinean. Prozedura sintaktiko horietako bakoitza egituraren konplexutasuna neurtzeko bidea ematen digu. Lehena, bihurkaritzeari dagokio. Besteak, hurrenez hurren, ezeztapenari, denborazko modifikazioari eta komunztadurari dagozkionak dira.

2.1. Bihurkaritzea

Wurmbrandt-ek proposatutakoaren arabera, birregituraketa egitura sinpleenak aditz proiektzio bakardunak dira. Halakoetan, modu adierazpidea funtzio adizki bat da:⁴

- (25)
- | | | |
|--|-----------|---------------------|
| | ModuS | |
| | / | \ |
| | AS | F ⁰ |
| | / | \ |
| | DP | A ⁰ muss |
| | Der Maria | helfen |

Egitura honetan, beheko aditz sintagma guziz gardena da kasu eta laguntzailearen hautaketarako, eta moduzko aditza laguntzaile bat da. (20) bezalako zerbaitek seguru aski ondoko kasuak errepresentatzen ditu euskaraz:⁵

⁴ A, aditz lexikoaren ordezkari dago; F, kategoria funtzional baten ordezkari. Jarraian, AS Aditz Sintagma izango da, a⁰ kausazio buru funtzionala da eta aS haren proiektzio nagusia.

- (26) a. Xabier joan behar da
 b. %Xabier joan nahi da

(26a,b)n, laguntzailea beheko aditzari dagokiona da, eta *behar* eta *nahi* moduzko buru funtzional gisa portatzen dira. (26)ren gisakoek ez dute kontrako ordenik onartzen.⁶

- (27) a. ??Nahi da joan
 b. ??Behar da joan


Egitate hau bat dator Wurmbrandt-en orokorpenarekin: F baten osagarri diren perpaus jokatuabeak F-ren aurretik agertzen dira, ez atzetik.

Har ditzagun orain ondokoak:

- (28) a. Xabierrek joan behar du
 b. Xabierrek joan nahi du

Hauetan, laguntzailea osagarri bat hartzen duen aditz lexiko bati dagokiona da, eta perpausaren subjektuak kasu ergatiboa hartzen du. Aditz iragankor baten aurrean gaudela ematen du beraz.

Xabier subjektua kasu ergatiboz hornitua agertzen zaigu eta menpeko *joan* aditz inakusatiboak Xabierren erreferentzia bera duen argumentu bat dauka. Hauek kontrol egitura baten ezaugarriak dira. Chomsky (1981) irekitako ildotik, eta San Martin-i (2001) jarraikiz, emango dugu beheko perpausaren argumentua izenordain isil batek betetzen duela:



⁵ (26b)koen kideak ez dira posible hiztun askorentzat. Ekialdeko zenbait hizkeretan aldiz arazorik gabe erabiliak dira (Euskararen Ereduzkp Prosa korpusetik):

- (i) Egitura berri hau izan nahi da euskararen garapen kontseilua (Herria, 2001, EEptik)
 (ii) Bena hor ere bizi nahi da euskara (Herria, J.L. D., 2001, EEptik)

⁶ Ereduzko Prosan egindako bilaketak ez du ale bakar bat ere eman tankera horretakoa, ez badira perpaus inpertsonalak (i) edo galdegaiak beharturiko inbertsioak (ii):

- (i) Lehenik behar da konkurso bat iragan (Herria, Eskola Gristinoak Apailatzen, 2003)
 (ii) Nahi-ta-ez behar zira jarri (Menane Oxandabaratx, *Ez da musik*, 2006)

PRO joan behar

(29) bezalako perpaus batean, *behar* aditz lexikoak kasua ezartzen dio menpeko partizipioari (hortik laguntzaile iragankorraren presentzia).⁷ Menpeko partizipioak egitura iragankorra izan dezake baitaere:

(30) Xabierrek liburuak erosi nahi ditu

Honen arabera, perpaus jokatu gabe hauek aditz ttipi bat izango lukete, eta hari itxekita, kanpo argumentu bat. Egitura hauek kontrol egiturak izango lirateke (menpekoa ilunduta ematen dugu, irakurketa laguntzeko):

(31) ...[[DP_{ERG} [[[PRO_{ERG} [DS A_{AS}] a⁰_{as}] Part⁰_{Parts}] A⁰_{AS}] a⁰_{as}]

Honek predikzio bat egiten du: bihurkaritzea posible izan beharko luke (26) bezalako zerbaitetan beheko aditz sintagman. Aditz sintagma horrek bi argumentu dituenez, bata kanpo argumentua eta bestea barnekoa, bihurkaritzearen oinarriko baldintza betetzen du (ikus Reuland eta Reinhart, 1992, 1993; Reuland, 2001). Reinhart eta Reuland-en arabera, bihurkaritzea predikatu baten koargumentuen artean sortzen den indizekidetasuna da. Predikatu sintaktiko batek bihurkaritze marka bat badarama, predikatu horren koargumentuek indize bera izan behar dute. *Predikatu sintaktiko* terminoa honela definitzen dute (1993:678):

(32) a. P buru batek osaturiko predikatu sintaktikoa P da, gehi P-ren argumentu sintaktiko guziak, eta P-ren kanpo argumentu bat (subjektu bat).

b. P-ren argumentu sintaktikoak P-k theta-rola edo kasua ezartzen dien islapenak dira (32)k mugatzen duen esparruan anafora batek uztartzaile bat izan behar du. (31)ko egiturari begiratzen badiogu, menpeko partizipioaren barneko bihurkaritzea posible izan beharko litzateke: a ttipiak (32)ko definizioa P gisa hartuta, kanpo argumentu bat dauka, eta a-A buru konplexuak berriz barne argumentu bat. Posible izan beharko luke erlazio bihurkari bat eratzea aS-ren barneko argumentuen artean goiko predikatu modala eta haren argumentua ukitu gabe. Euskararen bihurkari sistema hala ere, Reinhart eta Reuland-ek ingelesezetik abiatuta aintzat hartzen dutena baino konplexuagoa da, bi bihurkaritze prozesu desberdin agertzen dituelako. Batetik, *X-ren burua* bezalako izenordain konplexuak (33a), eta bestetik aditz laguntzailearen morfologian arrastoa uzten duen intrantsitibizazio prozesua (33b):

(33) a. Jonek ispiluan bere burua ikusi du

b. Jon ispiluan ikusi da

⁷ Honek aditzera ematen du VP₂ gisa identifikatu dugun partizipiozko egitura izenezkoa dela, ez aditz kategoriakoa (ikus Haddican, 2005).

(33b)k ordezkutzen duen estrategiak arrasto bat uzten du ez bakarrik laguntzailean, baita kanpo argumentuaren kasu-markatzean ere. (33b)k gainera, baldintza hertsiagoak ezartzen ditu indizekidetasunez lotzen diren argumentuen artean : barne argumentuak absolutiboa izan behar du bihurkaritzea posible izan dadin. Horrela, ezinezkoak dira (34b) eta (35b), (34a) eta (35a)tik, hurrenez hurren (Etxepare, 2003 :381) :

(34) a. Bere buruarengan sinesten du

b. *Sinesten da

(35) a. Bere buruari galdetu dio

b. *Galdetu da

Bihurkaritze estrategia hau beraz, bereziki argigarria gerta daiteke (30) bezalako perpaus baten partizipiozko menpekoak egitura iragankorra duen ala ez jakiteko orduan. Bihurkaritzeak kasu honetan, menpeko perpausa jo behar luke, *behar* modu aditzak proiektatzen duen egitura bere horretan utziz. Predikzioa, gure intuizioen arabera, betetzen da. Har dezagun intransitibizazio estrategia bakarrik (cf. 36b,d) onartzen duen predikatu bat (36a):

(36) a. Zerrendatik kendu dut

b. Zerrendatik kendu naiz

d. ??Zerrendatik nere burua kendu dut

Eta koka dezagun lehengo birregituraketa kontestuan:

(37) Zerrenda hortatik kendu behar/nahi nuke

Gure belarrietan, honek interpretazio bihurkaria izan dezake. Hau da, (37)k dituen interpretazio posibleen artean bada bat bihurkaritzat jo daitekeena: “X-k, X zerrendatua agertzen den tokitik X kentzeko nahia agertu du”. Bihurkaritzea beheko perpausentzat gertatzen da nahitaez, goiko perpausentzat laguntzaileak iragankorra izaten segitzen baitu, eta haren subjektua ergatiboa. Gauza bera gertatzen da perpaus jokatu gabea aditz nagusiaren ondotik badator:

(38) Behar/nahi genuke zerrenda hortatik kendu

Datu hauek ondorio honetara eramaten gaituzte: hala eskuinean agertzen diren partizipiozko perpausentzat, nola ezkerrean agertzen direnek ere, aditz-egitura iragankorra izan dezakete. Ezkerrean agertzen direnak, eskuinean agertzen direnak ez bezala, AS sinpleak ere izan daitezke, kanpo argumenturik gabeak.

1.2. Ezeztapena

Eskuinaldean ala ezkerrealdean diren partizipiozko perpausen artean sortzen den lehen asimetria ezeztapenaren presentziarekin azaleratzen da. Eman ditzagun birregituraketa egitura simple batzu (39a,b).⁸

- (39) a. Erosi behar nuke
b. Erosi nahi nuke

Ezeztapena posible da perpaus jokatu gabearen barnean, perpaus jokatu gabea aditzaren ondotik agertzen bada (40a), ez ordea bestela (40b):⁹

- (40) a. Nahi/Behar nuke [ez erosi]
b. *[Ez erosi] behar/nahi nuke

Datu hauek interpretatzeko modu bat da aditzaren eskuinean paratzen diren osagarri jokatu gabeak aukeran egitura konplexuago baten jabe izan daitezkeela. Ezeztapena, Lakak nahi duen bezala (1990), Denboraren adierazpen sintaktikoa hautatzen badu perpaus egituran, eskuineko menpekoak denbora markatzen duen perpausa izan behar du. Aldiz, arrazoibide berberaren arabera, ondorioztatzen dugu aditz nagusiaren ezkerrean agertzen zaigun perpaus jokatu gabeak ez duela denbora adierazpen sintaktikorik ekartzen, eta honenbestez, ez daitezkeela ezeztapenarekin ager. Nolabait esateko, egitura pobreegia du ezeztapenarentzat tokirik izateko. Bestelako azalpenak baztertzeko, erakus daiteke (40a)ko ezeztapena ez dela osagai-ezeztapena, perpaus mailako ezeztapena baizik. Osagai mailako eta perpaus mailako ezeztapenen arteko diferentziaren erakuspide gisa, har dezagun polaritatedun elementuen zilegiztatzea. Hauek, perpausean agertu ahal izateko, ezeztapenaren presentzia behar izaten dute:

- (41) a. *Inork erosi du
b. Inork ez du erosi

Ezeztapenak ordea perpaus mailako besarkadura izan behar du. Eman dezagun ondoko kasua, ezeztapena aditzari lotzen duena (Laka, 90etik moldatua):

- (42) Jonek du ez erosi

Kasu honetan, baieztapena erosketa-ezen ingurukoa da, eta ezeztapenak aditzaren gaineko besarkadura baizik ez du. Hau frogatzeko aski da ohartzea (42) bezalako perpaus batek ez duela baiezkotzat kontrasterik onartzen, perpaus mailako ezeztapenak ez bezala:

- (43) a. Jonek ez du erosi, Mikelek erosi du
b. Jonek du ez erosi, #Mikelek erosi du

⁸ Perpaus hauen birregituratze izaeraz, ikus Ormazabal (1990).

⁹ Haddicanek (2008) datu bera aipatzen du.

Honelako izaera duen ezezko perpaus batek ez dezake polaritatedun elementu bat zilegiztatu, honek perpaus mailako ezeztapena behar baitu:

(44) *Inork (ere) du ez erosi

Menpeko perpausetako ezeztapenak berriz, polaritatedun elementuak zilegiztatzen ditu:

(45) Nahi/behar nuke deus (ere) ez erosi (erosteko adikzio honetatik behingoz libratzeko)

Laburbiltzeko beraz: aditz nagusiaren eskuinean kokatzen diren menpeko perpaus jokatu-gabeek egitura aberatsagoa dute ezkerrean kokatzen direnak baino, ezeztapena, eta hura posible egiten duen egitura sintaktikoa, barnean hartzen dutelarik.

1.2. Denbora modifikatzaileak

Lakak proposatu bezala perpaus mailako ezeztapenak denborazko proiektzio sintaktiko bat hautatzen badu, denborazko proiektzio horren arrastoa agerian gelditu beharko luke aberatsagotzat jo ditugun ezkerreko perpaus jokatu-gabeetan. Kontsidera dezagun hartara honako kontrastea:

- (46) a. Jonek atzo behar zuen gaur etxean egon
b. *Jonek gaur atzo etxean egon behar zuen
c. *Jonek atzo egon behar zuen gaur etxean

Eman dezagun Jonen egun batetik besterako asmoez ari garela. Atzo, Jonek, gaur etxean egoteko asmoa agertu zuen. Eztabaidan ari garelarik erabakitzeko noiz esan ote zuen Jonek gaur etxean egon behar zuela, norbaitek (46a) atera dezake: atzo da, eta ez beste ezein egun, Jonek gaur etxean egoteko beharra agertu zuen eguna. Kontestu berean, (46b,c) ezinezkoak dira. (46a)k bi denbora parametro desberdin erakusten ditu: bata perpaus nagusiarekin lotua (*atzo behar zuen*), eta bigarren bat menpeko gertakariarekin lotzen dena (*gaur etxean egon*). Hau da hain zuzen ere espero duguna aditz nagusiaren eskuinaldean agertzen diren perpaus jokatu-gabeek denborazko adierazpen bat badute: denborazko adierazpen hori modifikatua gertatzea denborazko aditzlagunen bitartez. Gauza bera ezinezkoa baita ezkerreko perpaus jokatu-gabeetan, ondorioztatzen dugu hauek ez dutela denbora adierazpenik ekartzen.

1.3. Komunztadura

Komunztadurak ere bi egituren arteko bereizketa egiteko bidea ematen digu. Perpaus jokatu-gabea ezkerrean duten kasuek baitezpadakoa dute komunztadura egitea:

- (47) a. Horrelakoak maizago ikusi nahi nituzke
b. *Horrelakoak maizago ikusi nahi nuke
(48) a. Horrelako liburuak irakurri behar zenituzke
b. *Horrelako liburuak irakurri behar zenuke

Perpauis jokatugabea aditz nagusiaren eskuinaldean denean berriz, komunztadura hautazkoa bilakatzen da:

- (49) a. Nahi nituzke horrelakoak maizago ikusi
- b. Nahi nuke horrelakoak maizago ikusi
- (50) a. Behar zenituzke horrelako liburuak irakurri (horrek on egingo lizuke)
- b. Behar zenuke horrelako liburuak irakurri (horrek on egingo lizuke)

Ezkerreraturiko perpauis hautazko komunztadura datibo argumentura ere hedatzen da:

- (51) a. Zure gurasoei obeditu behar zenieke
- b. *Zure gurasoei obeditu behar zenuke
- (52) a. Behar zenieke zure gurasoei obeditu
- b. Behar zenuke zure gurasoei obeditu

Nola analizatu behar dugu asimetria hau? Komunztadura hautazkoa duten hiztunentzat proposatzen dugu menpeko perpauis jokatugabea egitura aldetik aberatsagoa izan daitekeela, eta kasu horretan komunztadura erlazioa ezinezkoa gertatzen dela. Eskuinaldeko perpauis jokatugabeek denborazko proiektzio funtzional bat izan baitezakete, eta ezeztapenarentzako lekua, emango dugu konfigurazio horrek urrutiegi uzten duela menpeko objektua harekin komunztadura posible izan dadin. Ikuspegi honetan, (49) eta (50)eko (a)-(b) etsenpluek bi egitura desberdin gauzatzen dituzte: bata ezker aldeko perpauis jokatugabeena, aS mailakoa; bestea aberatsagoa den bat, hipotesi hutsez Denbora Sintagma mailakoa, komunztadura galerazi egiten duena eta aditz nagusiaren ezker aldean ezinezkoa dena. Ikuspegi honetan, komunztadura ez da hautazkoa: egiturak dira desberdinak, eta horiek dira komunztadura aldizka baimendu eta galerazi egiten dutenak.

Beste aukera bat (49) eta (50)eko perpauisak zinezko hautazko komunztadura fenomeno baten gisa tratatzea da. Etxeparek (2006, agertzekoa; baita Preminger, 2009) erakutsi du zenbait hiztunek lokalitate erlazio jakin batzuen barnean urrunekoa dei daitekeen komunztadura egiten ahal dutela. Urruneko komunztadura hori Denbora Sintagma ez jokatueta barna egin daiteke eta guziz hautazkoa ematen du. Urruneko komunztadura fenomeno (53a,b) konparatuaz erakus daiteke:

- (53) a. Nobela luzeak irakurtzea gustatzen zaio
- b. Nobela luzeak irakurtzea gustatzen zaizkio

(53a)n, perpauis nagusiko laguntzaileak bere objektuarekin egiten du komunztadura. (53b)n, komunztadura menpeko perpauisaren objektuarekin egiten dela ematen du. Etxeparentzat (2006), eta hari segituaz Premingerrentzat (2009), urruneko komunztadura tarteko islapen

agertzen direnak ezin dira izan kausazio aditz sintagma bat baino konplexuagoak. Honela jasotzen dugu orokorpena:

- (59) a. $[[A^0_{AS}] a^0_{aS}] A^0$ Aditz nagusiaren ezkerrean
 b. $[[A^0_{AS}] F^0$
- (60) a. $A^0 [_{TP} T^0 [_{aS} a^0 [_{AS} A^0]]]$ Aditz nagusiaren eskubian
 b. $A^0 [_{aS} a^0 [_{AS} A^0]]]$

(59) tankerako egiturak, aditz nagusiaren aurretik agertzen direnak, aS mailakoak izan daitezke gehienez ere. (60) tankerakoak, aditz nagusiaren ondoren agertzen direnak, TP mailakoak izan daitezke. Orokorpena alde bat dator beste hizkuntzetan "estraposizio" gisa ezaguna denarekin. Deskriptiboki, aditza azken diren hizkuntzetan, alemaniera kasu, perpaus jokatu gabeak aditz nagusiaren eskuinetara ager daitezke. Hori bakarrik gertatzen da eskuineraturiko perpaus horrek gutxieneko tamaina sintaktiko bat badu. Wurmbrandt-en arabera (2001), gutxieneko tamaina hori Denbora proiektzioak ematen du.

2. Hitzordena eta norabidetasuna

2.1. Aditz isiltzeak

Errepara diezaigun (61) eta (62)-ren arteko kontrasteari:

- (61) a. Egina behar luke
 b. Etxean behar du
- (62) a. *Behar luke egina
 b. *Behar du etxean

Intuitiboki, (61)eko etsenpluei zerbait falta zaie: *egon* edo *izan* bezalako laguntzaile estatibo bat. (61a,b)n beraz, delako laguntzaile hori isildua dago. Irudika dezagun falta den laguntzailea honela:

- (63) $[[[Egina] \emptyset_{Laguntzailea}] behar_{Mod}] luke_{Irrealis}]$

Kontua da, zergatik kontrako ordenak galerazi egiten du isiltze hori bera? Semantikaren aldetik ez dirudi arazorik dagoenik, eta (62)ko perpausak berdinean interpretatzea posible izan behar luke. Arazoak beraz sintaxi egiturarekin du zer ikusia. Aoun eta bestek (1987) ondoko paradigma ematen dute, besteak beste, ingeleserako:

- (64) a. Jay introduced Kay to Ray, and Jim introduced Kim to Tim
 b. Jay introduced Kay to Ray, and Jim \emptyset Kim to Tim
 c. *Who did Jay introduce (who) to Ray and Jim \emptyset (who) to Tim?

(64)ko perpausetan bada, lehenik, isiltze bat, bigarren perpausako aditz jokatuari dagokiona (64b). Saiatzen bagara ateraketa bidez hutsarte horren eskuinean dagoen elementu bat lekuz

aldatzen, emaitza perpaus agramatikal bat da. Baldintza horren emaitzak agerian gelditzen dira baitaere ondoko paradigman (Lightfoot eta Anderson, 2002: 49):

- (65) Jay thought (that) Kay hit Ray
Jay uste-irag konp Kay jo-irag Ray
"Jayk uste izan zuen Kayk Ray jo zuela"
- (66) a. Jay thought Kay hit Ray, and Jim thought that Kim hit Tim
b. Jay thought Kay hit Ray, and Jim \emptyset that Kim hit Tim
c. *Jay thought Kay hit Ray and Jim $\emptyset_{\text{Aditza}}$ [\emptyset_{Konp} [Kim hit Tim]]

(65)en erakusten da ingelesaren konplementatzailea isildu daitekeela perpaus jokatua aditzaren osagarria denean (ikus Stowell, 1981; Pesetsky, 1995). (66)k erakusten du isiltze hori ezinezkoa dela aurreko aditza ere isildua badago. Deskriptiboki, elementu bat ez daiteke ezabatu isildutako osagai baten eskuinera. Bestela esanda, honako konfigurazioak ezinezkoak dira:

- (67) * [$\emptyset_{\text{elipsia}}$ [$\emptyset \dots$]]

Badira esplikazio posible bat baino gehiago honentzat. Pesetskyk (1995) eta Ormazabalek (1995) argudiatzen dute isildutako konplementatzailea forma lotu bat bezala portatzen dela, gobernatzen duen aditzari iratxeki behar zaiolarik. Lightfoot eta Anderson-ek (2002) mugimenduaren aztarnetara zabaltzen dute galdakizun hau. Haientzat, aztarna guziak afijoak dira, gobernatzen dituen ahizpa burura inkorporatu behar direnak.¹⁰ Ahizpa buru hori ez baita gauzatua delako etsenpluetan, afijoaren inkorporazioa ezinezkoa gertatzen da eta perpausa agramatikala.

Euskarara itzulita, baldintza berbera balia daiteke (61) eta (62) perpausen arteko kontrastea esplikatzeko, baldin eta perpaus jokatugabea aditz nagusiaren eskuinaldean agertzen den kasuak deribatuak badira, eta ez zuzenean sortuak. Eman ditzagun oinarrizko egiturak:

- (68) a. [[[egina] izan] behar]...
b. [[[egina] \emptyset] behar]...
- (69) a. [behar [_{InfS} luke [[[egina] izan] (~~behar~~)]...
b. [behar [_{InfS} luke [[[egina] \emptyset] (~~behar~~)]...]

Azpiko ordena (68)koa bada, isildutako laguntzailea (afijo bat, Pesetsky-ren analisibidea hartzen badugu) gobernatzen duen aditzera inkorpora daiteke. Aldiz, (69)ko ordena deribatua bada, eta hartarako *behar* aditz modala inflexioaz haratagoko leku batera mugitu badugu (ikus

¹⁰ Guk, haien proposamenaren letrara jo gabe, PF-errepresentazioen ongi-eratzte erregelen gain emango genuke (67) bezalako zerbaiten ezina, xuxen zer izan daitekeen batere argi ez badugu ere.

baitaere ondoko atala), isilduriko laguntzaileak ezingo du bere afijo izaera inon ere asebate, ez baita afijo hori hartuko duen ahizpa buru lexikorik.

2.2. Hondarraren mugimendua

(69)koa bezalako deribazio batek isiltzeen ezina esplikatzen balio digu, baina osatu beharrean gara. Laguntzailearen aitzinean agertzen dena adizki segida bat ere izan daiteke:

- (70) a. Behar izan dugu presaka etorri
 b. Nahi izan dugu lehenbaitlehen etorri

Nola azaltzen dugu orden hau? Aurreko analisisia gorde nahi badugu, biderik sinpleena da ematea mugitzen dena adizki hurrenkera horiek biltzen dituen osagai bat dela. Adizki hurrenkerak, kasu hauetan, modu adizkia eta aspektu adizkia hartzen ditu hurrenez hurren:¹¹

- (71) [ModS behar [AspS izan...]] du [XP presaka etorri...]

Laguntzailearen aurretik agertzen den egitura zatiak denborazko morfema bat ere erakus dezake:

- (72) [Beharko] du [presaka etorri...]


Asumituaz, Cinque-rekin (1999) batera, denbora adierazpideak moduzkoen gainera kokatzen direla perpaus egitura, honelako zerbait izango genuke:¹²

- (73) [DenbS[ModS behar] -ko] du [YP presaka etorri]

Egingo dugu (73) bezalako zerbaitek ez duela euskararen perpaus baten oinarritzko egitura gauzaten. Aldiberean, euskararen oinarritzko hitz hurrenkera burua lehen izan edo azken, ez dago modurik zuzenean honelako egitura bat eratortzeko, mugitzen dena ez baita osagai bat. Aditza bukaeran izango lukeen abiaburuko perpaus baten bitartez erakus dezakegu hori:

- (74) a. [DenbS[ModS[AS Presaka etorri] behar] izango] du

(74) bezalako perpaus batean, *behar* adizkiak AS hautatzen du, eta aldiberean Denbora buruak hautatua da:



¹¹ Ohart hemen adizkien arteko ordena behar izan dela, ez izan behar, eskuinean agertzen direnean bezala (cf. 69a). Haddican-ekin (2001), asumituko dugu (69a)k aspektu sintagma erakarri duela modu proiektzioaren eremura.

¹² Ikus Demirdache eta Uribe-Etxebarria, 2008, Cinquerena ez bezalako ikuspegi batentzat.

(75)en, denbora adierazten duen morfema lotua laguntzaile espletibo¹³ baten sostengua du (*izan*), eta ez dago, *beharko* forma konplexuaren kasuan bezala, buru mugimendurako motibaziorik. Buru mugimendurik gertatzen ez bada, ez dago garbi nola erator genezakeen *behar izango* segida laguntzailearen aurrean jarriko lukeen orden bat. Horrelako hitz hurrenkera bat, (76)koa, *behar* eta *izango* adizkiak batera lekuz aldatuko lituzkeen operazio baten bitartez bakarrik sor daiteke. Baina *behar izango* segidak ez du osagai bat ordezkutzen (75) bezalako egitura batean.

(76) Behar izan dugu presaka etorri

Buru mugimendua zilegi ez bazaigu, eta (76) bezalako hitz hurrenkera bat (75)eko azpiko egituratik zuzenean deribatzea posible ez bada, nola irits dezakegu (76) bezalako zerbait? Etxepare eta Uribe-Etxebarriak (2008) euskararen galdegaigunea perpaus egituraren toki batean baino gehiagotan egon daitekeela defendatzen dute. Zehazki, euskaraz bi galdegai posizio izango lirake: bata perpausaren ezkerrean, laguntzaileak markatzen duen eremutik kanpoan, eta beste bat Aditz Sintagmaren eremuan edo haren ertzean, laguntzailearen azpitik kokatua dagoena (ikus baitaere Belletti, 2005). Bi posizio hauek ezezko perpausetan nabarmentzen dira:

(77) a. JONEK ez du liburua erosi (ez Mirenek)

b. Liburua ez du JONEK erosi (baizik eta Mirenek)

Lehen kasuan, galdegaiek ezeztapenaren gaineko besarkadura hartzen du, bigarrenean berriz haren azpikoa.

Horrekin batera, gerta liteke, aukeran, galdegaia menperatzen duen egiturak bere aldetik ere perpausaren gora mugitzea. Honela esplikatzen dute Ortiz de Urbinak (1999) eta Etxepare eta Uribe-Etxebarriak (2008), itxuraz ezeztapenaren azpian agertzen den galdegaiek (intonazio jakin batez) ezeztapenaren gaineko besarkadura hartzea:

(78) Jonek ez du erosi ZUK AIPATU ZENIDAN LIBURU HURA, eta ez hau

(78) perpausak honelako deribazio bat izango luke Etxepare eta Uribe-Etxebarriaren arabera:

(79) a. [_{FokS} [ZUK AIPATU ZENIDAN LIBURUA]_i F⁰ [_{EzezS} pro ez du erosi t_i] ->

b. [_{TopS} [_{EzezS} pro ez du erosi t_i]_k Top⁰ [_{FP} [ZUK AIPATU ZENIDAN LIBURUA]_i F t_k

(79b)k hondarraren mugimendua erakusten du. Hondarra kasu honetan, galdegaiaren mugimendua egin ondoren gelditzen den [-Galdegai] zatia da. Hondarraren mugimendua hau topikalizazio klase bat bezala ikusten dute Etxepare eta Uribe-Etxebarriak (2008). Topikalizazioa aukerako operazio bat da, hiztunak egitea erabaki dezakeena, eta beraz ez da

¹³ Ez da nahastu behar, gure ustez, aspektuzko *izan*-ekin.

automatikoki gertatzen. Gure kasuetara itzuliaz, (76) bezalako perpaus bat antzeko bidetik erator daiteke. Eman dezagun lehenbizi galdegaia (kasu honetan *presaka etorri*) laguntzailearen azpiko galdegai posizioa mugitzen dela:

- (80) a. $[_{\text{FokS}} [_{\text{AS}} \text{presaka etorri}]_i F^0 [_{\text{ModS}} \text{nahi} [_{\text{AspS}} \text{izan } t_i]]]] \rightarrow$ laguntzailearen eransketa
 b. $[_{\text{LagS}} \text{du} [_{\text{FokS}} [_{\text{AS}} \text{presaka etorri}]_i F^0 [_{\text{ModS}} \text{nahi} [_{\text{AspS}} \text{izan } t_i]]]] \rightarrow$ Hondarraren mugimendua

Behin mugimendu hori gertatuta, galdegaia ez den zatiak hondar-mugimendua jasan dezake, momentuz zehaztuko ez dugun proiektzio funtzional batera (ikus 2.3. atala). Honek (76) bezalako hitz ordena deribatzen du:

- (81) $[_{\text{XP}} [_{\text{ModS}} \text{nahi} [_{\text{AspS}} \text{izan } t_i]]]_k X^0 [_{\text{LagS}} \text{du} [[\text{presaka etorri}]_i F^0 t_k]]]$

Gerta liteke hala ere, behin galdegaia mugituz gero, galdegaia dadukan osagaiak berak gora egitea, bigarren galdegai posizioa, garraio bidez. Kasu horretan Modu Sintagma osoa mugitzen da ezkerrean:

- (82) a. $[_{\text{FokS}} [_{\text{AS}} \text{presaka etorri}]_i F^0 [_{\text{ModS}} \text{nahi} [_{\text{AspS}} \text{izan } t_i]]]] \rightarrow$ laguntzailearen eransketa
 b. $[_{\text{LagS}} \text{du} [_{\text{FokS}} [_{\text{AS}} \text{presaka etorri}]_i F^0 [_{\text{ModS}} \text{nahi} [_{\text{AspS}} \text{izan } t_i]]]] \rightarrow$ pied-piping
 d. $[_{\text{FokS}} [_{\text{FokS}} [_{\text{AS}} \text{presaka etorri}]_i F^0 [_{\text{ModS}} \text{nahi} [_{\text{AspS}} \text{izan } t_i]]]]_k F^0 [_{\text{LagS}} \text{du} t_k]]$

2.3. Laguntzailearen lekua perpausaren

Goiko analisiak euskararen perpaus egituraren inguruko zenbait aitzin uste ondo errotu auzitan jartzen ditu. Analisia zuzena izateko, laguntzaileak ez ohiko toki bat hartu behar du perpaus egituraren: Aditz Sintagmaren ezkerrean egon behar du, ez eskuinaldean.¹⁴ Analisi alternatibo batek laguntzailea perpausaren hasierara mugituko luke. Honelako analisi baten eredia ezezko perpausaren trataera klasikoan dago. Lakaren analisi ezagunean, laguntzailea perpausaren eskuinaldeko bere lekutik mugitzen da ezkerrean dagoen ezezko buruari adjunktatzeko. Forma Logikoak ezartzen duen baldintza bat da mugimendua behartzen duena (1990):

- (83) Forma Logikoan, Denborazko operadoreak perpausaren bestelako operadoreak o-komandatu behar ditu

(83)ko baldintzak denbora tasuna duen laguntzailea (*da*, behean) ezeztapen burura mugitzera behartzen du:

- (84) EzeztS
 / \
 Ez+da DenbS

¹⁴ Era horretako analisiak proposatu izan dira hala ere. Ikus Elordieta (1997) eta Haddican (2004, 2008).

/	\
AS	Denb
/...etorri...\	(da)

Lakak zenbait argudio ematen ditu ezeztapenak laguntzailearen gaineko posizio bat daukala erakusteko. Garbientako bat elipsiari dagokio :

(85) $[_{DenbS} \text{Xabier etorri da}]$, baina Mikel $[_{EzeztS} \text{ez } [_{DenbS} \text{pro-etorri-da}]$

(85)en, Denbora Sintagma osoa da desagertzen dena elipsiaren bidez, aurreko Denbora Sintagmarekiko parekotasunez. Ezeztapena ez dagoenez ezabatzen den zatian, hartatik kanpora egon behar du. Datua garbia da oso, baina datu horrek berak arazo bat ekartzen dio (84)ri: zergatik, laguntzailea ezeztapen burura mugi badaiteke, ez da posible (86) bezalako zerbait:

(86) *Xabier etorri da, baina Mikel ez da

Kasu honetan, elipsia laguntzailearen mugimendua gertatu ondoren egiten dugu:

(87) Mikel $[_{EzeztS} \text{ez+da } [_{LagS} \text{pro-(da)-etorri}]]$

Ez dago deus ere (86) galeraz dezakeenik, baina (86) ez da posible.

(84)ko analisia berrikusteko abiapuntu bat laguntzailearen klitiko izaera gogoratzea izan daiteke. Gauza ezaguna da laguntzailea ez daitekeela euskaraz perpausaren hasieran izan:

(88) *da oso polita

Laguntzailearen aurretik hari sostengua emango dion zerbait agertu behar da. Aurreko gauza hori galdegaia izan daiteke, aditz lexiko bat, edo baiezkotasuna zein ezezkotasuna markatzen duen partikula bat (Ortiz de Urbina, 1994):

(89) a. JON da etorri

b. Etorri da

d. Ez da etorri

Laguntzailea ezkerrean duen azpiko orden batetik abiatuta, ondokotasun fenomeno horiek laguntzailearen aurrean agertzen diren elementuen barne-batzetik eratortzen dira.¹⁵ Guk Haddican-en (2004, 2008) proposamena aintzat hartzen dugu. Hartan, laguntzailearen gainetik badira konplementatzaile eremu hedatu bati legozkioken bestelako proiektzio funtzionalak. Batak Haddican-ek *Polaritate Burua* deitzen duena, ezeztapena erakartzen du ezezko perpausetan, eta baiezko partikula isil batek gobernatutako Aditz Sintagma baiezkoetan :

(90) a. $[_{PolS} \text{ez Pol}^0 [_{LagS} \text{da } [_{EzeztS} \text{ez Ezez}^0 [_{AS...} \text{etorri}]]]]]$

b. $[_{PolS} [_{BaiezkoS} \emptyset [_{AS} \dots \text{etorri}]] \text{Pol}^0 [_{LagS} \text{da } [_{BaiezkoS} \emptyset \text{Baiez}^0 [_{AS...} \text{etorri}]]]]]$

¹⁵ *Barne-batze* terminoaren bitartez Chomsky-ren *internal merge* terminoa itzultzen dugu.

Bestea galdegaiari dagokiona da, Haddican-ek Polaritate Buruaz harantzago ezartzen duena:

(91) [FokS JON Fok⁰ [PolS ez Pol⁰ [LagS da [Ezezs ez Ezez⁰ [AS JON etorri]]]]]

Galdegaiak, ezeztapenak bezala, laguntzailearen klitikotasuna ase dezake, behin perpausaren ezkeraldera mugituz gero. Baina zer gertatzen da galdegaia laguntzailearen azpiko posizio batera mugitzen bada, Etxeparek eta Uribe-Etxebarriak (76)ren tankerako kasuentzat proposatzen duten bezala? Behean errepikatzen dugu perpaus hori:

(76) Behar izan dugu presaka etorri

(76) perpausaren tarteko emaitza, laguntzailea erantsi eta gero, (92)-ren bitartez irudika daiteke:

(92) [LagS du [FokS [AS presaka etorri]_i F⁰ [ModS behar [AspS izan t_i]]]]

(92) fonologikoki gaizki eraturako perpaus bat da: laguntzaileak ez du bere ezkerrean elementu beregainik hari lotzeko. Kasu honetan galdegaiak atzean utzitako adizki segida da laguntzailearen aurreko posizio batera mugitzen dena, Haddican-ek Polaritate Burua deitzen duenaren espezifikatzailea:¹⁶

(93) [PolS [ModS behar [AspS izan t_i]]_k du [[presaka etorri]_i F⁰ t_k]]]]

Polaritate islapenerako mugimendu horrek ezeztapena erakartzen du bakarrik ezezko perpausetan. Horretarako beharrezkoa da ezeztapenaren jatorrizko lekua laguntzailearen azpikoa izatea (ikus Haddican, 2004):

(94) a. [EzeztS Ez [LagS du [FokS [AS presaka etorri] F⁰ [EzezkoS ez Ezez⁰ [ModS nahi [AspS izan...]]]]]]

Horregatik da ezinezkoa laguntzailearen aurrean agertzen diren modu aditzen zuzeneko ezeztapena:¹⁷

¹⁶ Horretarako beharrezkoa da baiezkotasuna markatzen duen partikula isilak modu aditza menperatu dezan.

¹⁷ *Nahi* modu adierazpidearekin paradigma ez da guziz berdina, (95d)-ren kidea posible baita :

(i) Ez du nahi etorri

Nahi behar-etik bereizten da bestelako kontestuetan ere. Axolazkoa den bat honakoa izan daiteke :

(ii) a. Jonek nahi duena da hil (<Jonek hil nahi du)

b. Jonek behar duena da hil *(<Jonek hil behar du)

Iduri luke *nahi*-k aditz izaera garbiagoa duela *behar*-ek baino. Gure analisisian horrek *nahi*-ren barne topikalizazioa ahalbidetzen du (ikus Belletti, 2005 aSren ertzeko galdegai eta topiko guneez):

(iii) a. [FokS [AS...etorri] Fok⁰ [ModS nahi ...]] -> *Nahi* topikalizatu

b. [TopS nahi [FokS [AS...etorri] Fok⁰ [ModS ~~nahi~~ ...]] -> laguntzailea batu

d. [LagS du [TopS nahi [FokS [AS...etorri] Fok⁰ [ModS ~~nahi~~ ...]]] -> ezeztapena batu

e. [PolS Ez Pol⁰ [LagS du [TopS nahi [FokS [AS...etorri] Fok⁰ [ModS ~~nahi~~ ...]]]]]

- (95) a. *Ez behar du etorri
b. *Behar ez du etorri
d. *Ez du behar etorri

(95)eko perpausak Polaritate Buruarekiko lehian diren bi osagaien mugimendua eskatuko luke: ezeztapenarena eta modu sintagmarena. Ezeztapena gertuago dagoenez Polaritate Sintagmatik, hura da erakarria dena. Modu Sintagmak ez du zertan mugitu beharrik beraz, eta ekonomiaz, ez da mugitzen.

2.4. Laburpena

Bigarren atal honek erakusten du, gure ustez, laguntzailearen aurretik agertzen diren adizki hurrenkerak, modua eta aspektua hartzen dituztenak, posizio horretara mugitu egiten direla beheragoko posizio sintaktikoetatik. Proposatzen dugun deribazioak Etxepare eta Uribe-Etxebarriak (2008) euskarari aurkitzen dituzten bi galdegai guneak baliatzen ditu, eta horrekin batera hondarraren mugimenduaren posibilitatea. Gure analisiak euskaraz laguntzailea ezkerrean egotea eskatzen du, eta horrela lan honek, zeharka bada ere, euskararen buru norabidetasunaren auzian burua lehen tipologiaren alde egiten du. Horretan, azken urteotan zenbait ikerlarik, bereziki Elordietak (1997) eta Haddican-ek (2001, 2004, 2005, 2008), hartu duten biderei segitzen dio.

Bibliografia

- Aissen, Judith (1973) « Shifty Objects in Spanish » In Claudia Corum, T. Cedric Smith-Stark eta Ann Weiser (arg) *Papers from the Ninth Regional Meeting*. Chicago Linguistic Society. Chicago:1973. 11-22.
- Alzola, Nikolas (1994) *Euskaraz Irunen barrena*. Irun:Luma.
- Anderson, Stephen eta David Lightfoot (2002) *The Language Organ. Linguistics as Cognitive Physiology*. Cambridge University Press.
- Aoun, J. eta beste (1987) "Two Types of Locality" *Linguistic Inquiry* 18:537-577.
- Arteatx, Iñigo, Xabier Artiagoitia eta Arantzazu Elordieta (arg) *Antisimetriaren hipotesia vs. Buru parametroa: euskararen oinarritzko hitz hurrenkera ezbaian*. Bilbo:Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Baker, Mark (1988) *Incorporation*. Chicago:Chicago University Press.
- Belletti, Adriana (2005) "Extended doubling and the VP periphery" *Probus* 17:1. 1-36.
- Camino, Iñaki (1997) *Aezkoako mintzoa*. Donostia: Elkar.
- Chomsky, Noam (1981) *Lectures on Government and Binding*. Dordrecht:Foris.
- Chomsky, Noam (1995) *The Minimalist Program*. Massachusetts:MIT Press.

- Cinque, Guglielmo (1999) *Adverbs and Functional Heads. A Cross-Linguistic Perspective*. Oxford:Oxford University Press.
- Cinque, Guglielmo (2006) *Restructuring and Functional Heads. The Cartography of Syntactic Structures*, volume 4. Oxford:Oxford University Press.
- Demirdache, Hamida eta Myriam Uribe-Etxebarria (2008) “On the temporal syntax of non-root modals” In Jacqueline Lecarme eta Jacqueline Guéron (arg) *Time and Modality*. Dordrecht: Springer. 79-114.
- Elordieta, Gorra (1997) *Morphosyntactic Feature Chains and Phonological Domains*. Doktorego tesia, University of Southern California.
- Elordieta, Arantzazu (2001) *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*. Herbehereak: LOT Publications.
- Etxepare, Ricardo (2003) “Valency and Argument Structure in the Basque Verb” In Jose Ignacio Hualde eta Jon Ortiz de Urbina (arg) *A Grammar of Basque*. Berlin:Mouton. 363-425.
- Etxepare, Ricardo (2006) “Long Distance Agreement in non-standard Basque” In Joseba Lakarra and Jose Ignacio Hualde (arg) *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R.L. Trask*. Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo” XL:1-2. 303-350.
- Etxepare, Ricardo (agertzekoa) *Optional Agreement Phenomena in Basque*. Habilitazio eskuizkribua. Iker, Baiona.
- Etxepare, Ricardo eta Myriam Uribe-Etxebarria (2008) “On negation and focus in Spanish and Basque” In Xabier Artiagoitia and Joseba A. Lakarra (arg) *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagaren Omenez*. Bilbo:Euskal Herriko Unibertsitatea. 287-310.
- Evers, Arnold (1975) *The Transformational Cycle of Dutch and German*. Doktorego tesia, Utrecht-eko Unibertsitatea.
- Haddican, William (2001) “Basque Functional Heads” Linguistics in the Big Apple. CUNY/NYU Working Papers in Linguistics.
- Haddican, William (2004) “Sentence Polarity and Word Order in Basque” The Linguistic Review 21:2, 81-124.
- Haddican, William (2005) *Aspects of Language Variation and Change in Contemporary Basque*. Doktorego tesia, New York University.
- Haddican, William (2008) « Euskal perpausaren oinarritzko espez-buru-osagarri hurrenkerare aldeko argudio batzuk » In Iñigo Arteatx eta beste (arg). 69-96.
- Laka, Itziar (1990) *Negation in Syntax. On the Nature of Functional Projections and Projections*. Doktorego tesia, MIT.

- Montoya, Elisabete (2004) *Zugarramurdi eta Urdazubiko euskara*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Ormazabal, Javier (1990) "Modal verbs in Basque and head-movement" In Joseba A. Lakarra eta Iñigo Ruiz Arzalluz (arg) *Memoriae L. Mitxelena Magistri Oblatae. Pars Altera*. ASJUko Gehigarriak 14. Donostia:Gipuzkoako Foru Aldundia. 835-845.
- Ortiz de Urbina, Jon (2002) "Focus of correction and remnant movement" In Xabier Artiagoitia eta beste (arg) *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf de Rijk*. ASJUko Gehigarriak 44. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 511-524.
- Pesetsky, David (1995) *Zero-Syntax*. Cambridge, Massachusetts:MIT Press.
- Preminger, Otto (2009) "Breaking Agreements" *Linguistic Inquiry*-n agertzekoa.
- Reinhart, Tanya eta Eric Reuland (1993) "Reflexivity" *Linguistic Inquiry* 24: 657-720.
- Reuland, Eric (2001) "Primitives of Binding" *Linguistic Inquiry* 32:439-492.
- Rizzi, Luigi (1982) *Issues in Italian Syntax*. Dordrecht:Foris.
- Rochette, Anne (1988) Semantic and syntactic aspects of Romance sentential complementation. Doktorego tesia, MIT.
- Sagarzazu, Txomin (2005) *Hondarribiko eta Irungo Euskara*. Irun:Alberdania.
- San Martin, Itziar (2002) On subordination and the distribution of PRO. Doktorego tesia, University of Maryland.
- Stowell, Tim (1981) *Origins of Phrase Structure*. Doktorego tesia, MIT.
- Wurmbrandt, Suzanne (2001) *Infinitives*. New York: Mouton de Gruyter.
- Wurmbrandt, Suzanne (2005) "Verb clusters, verb raising and restructuring" In Martin Everaert eta Henk van Riemsdijk (arg) *The Blackwell Companion to Syntax*. Oxford:Blackwell. 227-341.